

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Goicoechea lehendakariordea Nafarroako berrindustrializazioaren alde agertu da dinamizazio ekonomikoa eta enpleguaren sorrera areagotzeko bide gisa

Nafarroako desenpleguaren egoerari buruz Parlamentuan egindako osoko bilkura monografikoan egindako agerraldian defendatu du, hazkundera berrikuntzan, nazioartekotzean eta ekintzailtzan oinarritu behar dela

Jueves, 21 de febrero de 2013

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak desenpleguaren egoerari buruz Nafarroako Parlamentuan egin den osoko bilkura monografikoan parte hartu du gaur. Bere [agerraldian](#) "garrantzizko neurriak eta egiturazko erreforma konplexuak" hartzeko beharra defendatu du Foru Komunitatea berrindustrializatzeko xedearekin.



Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea Zubelzu.

Zehazki, Goicoechea kontseilariak aipatu du berrindustrializazioa "anbizio handieneko helburua" dela ekonomia dinamizatzeko eta enplegua sortzeko. Alde horretatik, esan du "Nafarroaren hazkundera industriari bultzada berri batean oinarritu behar dela, berrikuntza, nazioartekotzea eta ekintzailtza protagonista nagusiak izanik". Gogora ekarri du azken hilabeteotan "industria-sektore sendoagoa eta anitzagoa" lortzea eragingo duten zazpi enpresa berri ezartzea hitzartu dela.

Goicoecheak ere berriki hartu diren zenbait neurriren balantzea egin du, bizkortze ekonomikoa eta berrindustrializazioa sustatzeko bidetik doazenak.

- Lehenik eta behin, Goicoecheak enpresa berriak ezartzea errazten duen **politika fiskal berria** aipatu du eta, ekintzaileentzako Sozietate Zerga eta PFEZ berri batekin batera, Iruzuraren aurkako Borroka Plan berri bat barnean hartzen du eta ezkutuko ekonomiaren aurka egiteko eragile ekonomiko eta sozialekin berriki lortutako akordioa.



Goicoechea lehendakariordeak Parlamentuan egindako agerraldiaren beste une bat.

- **Ekintzailetza** sustatzeko neurri zehatzei dagokienez, Goicoechea lehendakariordeak gogoratu du Gobernuak landutako planak gai hori ikuspegi integral batetik aztertzen duela ekintzaileen kulturaren alde egiteko eta ekintzaileei laguntza instituzionala nahiz sozial eskaintzeko. Gainera, ekintzaileei laguntzeko neurri berriak barnean hartzen ditu 'crowdfunding' bidez (taldeko mikrofinantzaketa) edo burokrazia murriztea enpresa berriak sortzen dituztenei.

- Jarduera ekonomiko berriak abiarazteko beharrezko **finantzaketari** buruz, lehendakariordeak gogoratu du zenbait kreditu-lerro zabalik daudela Europako Inbertsio Bankuaren (250 milioi euro) eta Banco Santander-en bidez (350 milioi euro) eta baita mikrokredituak ere beste finantza-erakunde batzuen eskutik.

- Nafarroako enpresen **nazioartekotzea** da, Goicoechearen arabera "hazkundearen oinarrietako bat", Gobernuak amaitzeaz duen Nafarroako II. Nazioarteko Planaren ardatza. Gainera, kontseilariak adierazi du 2014-2020 urteetarako Europako Finantza Esparrua berria, Espainiarako 1.824 milioi euro izanik, Nafarroarentzat "aukera bat" dela. Aipatu du Cosme (ETeen finantzaketa eta sorrera), Progress (langileen mugikortasun geografikoaren eta profesionalaren sustapena) eta Horizonte 2020 (lidergo industrial eta berrikuntza) programa berriak "aukera interesgarriak" direla Nafarroarentzat.

- Goicoecheak adierazi du, esportazioak handitzearekin batera, "anbizio handieneko helburua" Nafarroaren **berrindustrializazioa** izan behar dela enpresa berriak erakarriz. Gogoratu du azken hilabeteotan Gobernuak zazpi enpresa berrirekin akordioak sinatu dituela Foru Komunitatean finka daitezen.

- Azkenik, kontseilariak **automobilgintzaren sektoreaz** aritu da; sektore hori bultzatzeko lan egiten ari dira "Volkswagen-en bigarren modelo bat ekoitziz", eta **nekazaritzako elikagaiei** buruz ere hitz egin du "Nafarroako etorkizunerako estrategikoa dena". Bi sektoreak **azpiegitura berrien** eraikuntzaz baliatuko dira, Nafarroako Ubidea edo AHT esaterako, eta kontseilariaren aburuz haiek "berrindustrializazioan, nazioartekotzean, ikerketan eta birsortze ekonomikorako funtsezko sektoreen sustapenean eragina duten zutabeak dira".

Desenpleguaren aurkako neurriak

Lehen lehendakariordeak esan du Nafarroa "egoera kezkarria" dagoela desenpleguak gora egin duelako. BAIren azken datuen arabera, % 17,15ekoa da. "Alboko autonomia erkidegoen antzeko tasa" da, baina gaineratu du "langabezia nabarmen igo den arren", krisia hasi zenetik "Espainiako gainerako tokietan baino askoz gutxiago" egin duela gora Nafarroan.

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen azterketatik ondoriozta daiteke desenpleguaren igoera biztanleriak izan duen hazkundearekin batera joan dela, alboko autonomia erkidegoetako hazkundera baino handiagoa izan dena. Horrek esan nahi du Nafarroak "alboko autonomia erkidegoek baino Espainiaz

kanpoko pertsona gehiago hartu dituela eta gure merkatuak, krisi ekonomiko egoeran, ezin izan dituela haiek guztiak barnean hartu".

Nafarroako Gobernuak, Goicoecheak azaldu duenez, eragile ekonomikoekin lanean dihardu desenpleguan dauden pertsonak kontratatzeke eta enplegarritasuna hobetzeko. Alde horretatik, IV. Enplegu Plana luzatzeari esker, lehentasunezko jarduketa-lerro batzuk ezarri ahal izan dira, eta datozen hilabeteotan sendotu egingo dira.

Haietako bat izango da, **20 teknikari enplegu-eskatzaileri laguntza** emateko zerbitzuan sartzea. Era horretan, lanik gabe daudenei ematen zaien arreta hobetu nahi da banakako planak eta enplegarritasuneko ibilbideak egikaritzuz.

Prestakuntza-arloan Goicoecheak azaldu du 2013an lan-merkatuaren eskariarekin bat datorren prestakuntza ematen jarraituko dela prestakuntzako eta enpleguko ikastaro nahiz programa mistoen bidez:

- Berritasunen artean, **funtsezko eskumenetako** eskaintza sendotuko da kualifikazio txikiko pertsonen prestakuntza espezifikoa jaso dezaten.

- **CENERekin ere elkarlanean** ariko da nazioartean finkatzeko Nafarroako enpresei laguntza emateko.

- ETEen **kontratatzeke konpromisoa** eta lehiakortasuna sustatzen duten deialdiak berriz diseinatuko dira.

- **Ingeleseko eta frantseseko prestakuntza**-programa bat abian jarriko da, online.

- Prestakuntza, laguntza eta orientazioko ekintzak barnean hartzen dituen integratutako programen barnean sartzen da, **tailer-eskola eta enplegu-tailerretarako** estrategia berria. Urte honetatik aurrera, lan-merkatuaren errealitatera bideratuta dago eta, hari esker, programa horietako ikasleek enplegu bat izateko aukera dute beraien prestakuntza amaitu ondoren.

Enpleguaren Sustapena eta Aukeren Berdintasunari dagokionez, kontseilariak ekintzailtza-tasa hobetzeko hiru neurriren berri eman du:

- **Erakundeen sare** bat sortuko da, era koordinatuan lan egingo du eta informazioa partekatuko du enpresa bat abiarazi nahi duten pertsonen behar bezalako aholkularitza emateko.

- **Toki Garapeneko Agenteen** programa berriz aztertuko da Foru Komunitateko lurralde guztian enplegua sortzeko aukerak identifikatzeko asmoarekin.

- Eta azkenik, Lourdes Goicoecheak iragarri du, laster autoenpleguaren diru-laguntzen programa Europako araudiari egokituko zaiola. 2013an itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak aldatu egingo dira eta **itzuli beharreko diru-laguntzak** bihurtuko dira; 2014an sartuko dira indarrean eta mikrokredituen antzera funtzionatuko dute.

Azkenik, kontseilariak baieztatu du 2013an aurreko urtean jada ezarritako honako laguntza-lerro hauekin jarraituko dela:

- **Toki Erakundeei emandako diru-laguntzak lanik gabe dauden pertsonak kontratatzeke**; haien bitartez langabeak kontratatzeke soldata-kostuen % 50 eta % 90 artean finantzatzen da. Sistema horrekin 2012an 655 pertsona kontratatu ziren.- Toki Erakundeei emandako diru-laguntzak Gizarteratzeko Errenten hartzaileak kontratatzeke. Gizarte Politiken Departamentuarekin batera finantzatzen da eta, hari esker, 2012an 320 pertsona sartu ahal izan dira lan-merkatuan.

- **Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntza langabeak kontratatzeke**. Haren bidez, langabeak kontratatzeke soldata-kostuen % 70 arte finantzatzen da. 2012an neurri horrekin 49 pertsona kontratatu ziren.

- **Ezintasunen bat duten pertsonen** dagokienez, Nafarroak SMIren % 75eko laguntzari eutsiko dio ezintasuna duten langileentzat, eta hori egiten jarraitzen duen Komunitate bakarra da. Neurri horrekin,

2012an 1.283 lanpostu ez dira galdu Enpleguaren 17 Zentro Berezitan eta haiei 7,5 milioi euroko diru-laguntza eman zaie. Horri gaineratu behar zaio enpresa arruntetan kontratatutako 54 ezinduak, 252.00 euroko diru-laguntza jaso dutenak.

Parlamentuan izandako agerraldian, Goicoecheak alderdi politikoei "neurri zehatzak, egingarriak, bideragarriak era errealak" eskatu dizkie "adostasunaren eta akordio politiko eta sozialaren bidez" lortuko direnak; halaber, seguru agertu da "lan-formula berriak aztertu eta baloratu behar ditugula lan-banaketan eragina izango dutenak enpleguei eusteko bide bezala".